

ISTRIPUA. Dolu adierazpen gisa, Arrasate, Markina eta Donostiako egoitzak itxita egongo dira gaur egun osoan

Fagorreko zuzendaritzako lau kide hil dira Iranen izandako hegazkin istripuan

Laurak «esperientzia handikoak» ziren enpresan, eta 6 eta 28 urte bitartean zeramatzaten lanean bertan

Hegazkin istripua Iranen



ISTRIPUAN HILAK

JESUS MARIA OLAZABALAGA URIBE

(Fagorreko I+G eta Kalitateko zuzendaria)

Jesus Maria Olazabalaga Uribe 59 urteko larrabetsuarrak 28 urte zeramatzan enpresarentzat lanean. Egun, Ikerketa+Garapen eta Kalitate zuzendaria zen. Ezkondua zen, lau seme-alaba zituen, eta Arrasaten bizi zen.

JOSEBA MIRENA AZKOAGA

(Proiektuen kudeatzailea)

Enpresan urte gutxien zeramana zen. Hain zuzen ere, sei urte zeramatzan Fagorrentzat lanean. 31 urte zituen, eta Orozkon (Bizkaia) bizi zen, alegia, jaio zen herrian bertan. Ezkondu gabea zen, baina neska-laguna zuen.

JULIO IBARRA PASTOR

(Fagorreko Asiarako zuzendari komertziala)

Julio Ibarra Pastor Beasainen bizi zen, eta enpresaren barruan Asiako egoitzen ardura zuen gaur egun, Asiarako zuzendari komertziala baitzen. 49 urte zituen, eta duela 17 urtetik ari zen lanean Arrasateko enpresarentzat.

JUAN CARLOS GOIKOETXEA DE MIGUEL

(Fagorreko Erosketa zuzendaria)

Olazabalagak bezala, Juan Carlos Goikoetxeak ere 20 urtetik gora zeramatzan lanean Mondragon Korporazio Kooperatiboko (MCC) enpresarentzat; 22 urte, hain zuzen ere. Oteizan (Nafarroa) jaioa, egun Aretxabaletan bizi zen. Ezkondua zegoen, eta bi seme-alaba zituen.



JUAN HERRERO / EFE

Fagorren Arrasateko egoitza, atzo. Gaur, Donostiako eta Markinako egoitzetan bezala, ez dute lanik egingo bertan.

Erredakzioa | DONOSTIA

Fagor Arrasate enpresako zuzendaritzako lau kide hil ziren atzo Iranen, Khorramabad hiritik 30 bat kilometrorra dagoen mendi ingurune batean izandako hegazkin istripuan. Lau euskal herritarrez gain, beste 113 lagun hil ziren istripuan.

Atzo arratsalderako Reza Berzegad Irango Garraio ministroak baieztatu zuen ez zela inor bizirik atera istriputik.

Fagor Arrasate enpresak prentsa ohar baten bidez jakinarazi zuen zeintzuk diren hil diren lau pertsonak: Jesus Olazabalaga I+G eta Kalitate zuzendaria, Julio Ibarra Asiarako zuzendari komertziala, Juan Carlos Goikoetxea Erosketa zuzendaria eta Joseba Azkoaga Proiektuen kudeatzailea.

Laurak igandean irten ziren Gipuzkoatik, eta hamar eguneko bidaia egiteko helburua zuten Iranen, autoentzako prentsa ekoizpenerako hiru linea sustatzeko. Fagor Arrasatek egoitza bat du Iranen.

Hegazkina, Tupolev 154 markakoa, goizeko 07:30ean (Irango ordua) irten zen Teherandik Khorramabadara.

GORPUEN JASOTZEA

Teheranek jakinarazi du zailtasunak izango direla, mendia delako eta airekoaren zatiak sakabanatu direlako

Hiri horretara heldu aurretik, Txigini izeneko mendi ingurunean, lurreratzeko maniobrak egiten hasi zen hegazkina, baina, oraindik nola ez dakitela, hegazkinak istripua izan zuen. Inguruko biztanleek «leherketa handi bat» entzun zuten istripuaren ostean, Irango irratiek jakinarazi zuten. Iturri horien arabera, hegazkina guztiz txikituta geratu zen elur artean.

Hilotzak jasotzeko lanetarako zailtasunak

Atzo iluntzean, salbamendu taldeetako kideak artean ez ziren heldu istripua gertatu zen tokira. Eguraldi txarrak eta ingurunearen zailtasunak lanak asko zailduko dituztela jakinarazi zuen Irango Gobernuak. Teheranen arabera, ez dute espero gorpuk berehala jasotzea.

Atzo ez zuten eman istripuaren arrazoiaren berririk, baina Mohamed Khatami Irango lehendakariak aditu talde bati agindu dio istripuaren nondik norakoak argi ditzala.

Erreakzio ugari Euskal Herrian

Istripuak erreakzio ugari eta samin handia eragin zuen Euskal Herrian. Fagor Arrasatek Markina, Arrasate eta Donostiako egoitzak itxi zituen atzo, berria jakin bezain laster. Gaur ere hala izango ditu.

Eusko Jaurlaritzak doluminak eman zizkien Fagorreko zuzendaritzari eta langileei eta hildakoen senideei. Halaber, tramite burokratikoak arintzeko «behar den guztia» egiteko prest azaldu zen. Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak berak azaldu zion elkartasuna enpresako zuzendaritzari.

Adegi Gipuzkoako patronalak ere mina adierazi zuen heriotzengatik, eta elkartasuna adierazi zien hilen senideei.

Josep Pique Espainiako Atzerri ministroa Irango Atzerri ministroarekin harremanetan jarri zen atzo, eta gorpuk lehenbailehen bilatzeko eskatu zion, Efe berri agentziaren arabera.

FAGORREN ERREAKZIOA

Gaur itxita egongo dira enpresaren egoitzak

Fagor Arrasate kooperatibak Arrasate, Markina eta Donostiako egoitzak itxita eduki zituen atzo, ezbeharraren berri izan eta berehala. Gaur ere itxita egongo dira hiru egoitzak.

Enpresarentzat «galera handia» izan da lau zuzendarien heriotza, Fagor Arrasateko gerente Luis Unzuetak atzo adierazi zuenez. Mondragon Korporazio Kooperatiboko (MCC) lehendakari Jesus Catania, lehendakariorde Jose Ramon Goikoetxea eta Prestakuntza zuzendari Santiago Castillorekin batera egindako agerraldian egin zituen adierazpenak Unzuetak. «Esperientzia handikotzat» jo zituen laurak Unzuetak, eta «profesional ezin hobetzat». «Ezin dugu bete haien hutsunea egun batetik bestera».